LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

# LESAKAKO ALKATEAREN EBAZPENA
# RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DE LESAKA

2018ko apirilaren 6an, Lesakako alkate jaunak honako hau ebatzi du, bertzeak bertze:

Con fecha 6 de abril de 2018, el señor alcalde de Lesaka ha adoptado la siguiente resolución:

**"(155/2018) BEHIN BEHINEKO BAIMENA MARCOS ETXABIDE AIERTZARI, LUR- KOMUNAL BATEKO BELARRAK APROBETXATZEKO**

2018ko martxoaren 21ean, Marcos Etxabide Aiertza jaunak idazki bat aurkeztu zuen (786. sarrera Udalaren Erregistro Orokorrean) eta bertan eskatzen zuen Sastringo parajean dagoen lur komunal bat, belarretarako aprobetxatzea. Katastroko 4. poligonoko 15. partzelaren G azpi-partzelaren zati bat da. Gutxi gora behera hektarea eta erdiko azalera du.

Lesakako Udaleko aprobetxamendu komunalak arautzen dituen Ordenantzak (bere testua, 1991ko urriaren 11ko 130. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen), belar komunalen aprobetxamendua ezartzen du bere 30. artikulutik 39.artikuluraino, biak barne.

Hori guztia ikusirik, erabakitzen dut:

1.) Marcos Etxabide Aiertza jaunari aprobetxamenduaren behin-behineko esleipena egitea. Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuak onartutako Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren 189. artikuluak ezarritakoa kontuan hartuz, aprobetxamendua hamar urteko eperako ematen zaio.

2.) Ondasunen Erregelamenduaren 202. artikuluak agindutakoaren arabera, behar diren iragarkiak Udalaren oholean eta web orrian argitaratu ondoren, hamabost eguneko epea ezartzen da alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.) Ebazpen hau eskatzaileari eta Nafarroako Gobernuko Komunalen Atalari jakinarazia izan dadila. Bidaliko zaie, halaber, aipatutako eskaeraren kopia bat."

**"(155/2018) AUTORIZACIÓN PROVISIONAL A MARCOS ETXABIDE AIERTZA PARA EL APROVECHAMIENTO, CON DESTINO A PASTOS, DE UN TERRENO COMUNAL**

El día 21 de marzo de 2018, don Marcos Etxabide Aiertza presentó una instancia (entrada 786 en el Registro General del Ayuntamiento), mediante la que solicitaba el aprovechamiento, con destino a pastos, de un terreno comunal situado en el paraje de Sastrin. Se trata de parte de la subparcela G de la parcela 15 del polígono 4 del catastro. Tiene una superficie aproximada de hectárea y media.

La Ordenanza reguladora de los aprovechamientos comunales del Ayuntamiento de Lesaka (cuyo texto fue publicado en el Boletín Oficial de Navarra número 130 de 11 de octubre de 1991), establece el aprovechamiento de pastos comunales en sus artículos 30 a 39, ambos inclusive.

A la vista de todo ello, resuelvo:

1º) Adjudicar provisionalmente el aprovechamiento a don Marcos Etxabide Aiertza. Teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 189 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, aprobado por Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, se le concede el aprovechamiento para un plazo de diez años.

2º) Conforme a lo establecido por el artículo 202 del Reglamento de Bienes, se establece un periodo de quince días para la presentación de alegaciones, tras la publicación de los correspondientes edictos en el tablón del Ayuntamiento y en su página web.

3º) Que se notifique la presente Resolución al peticionario y a la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra. Se les enviará asimismo una copia de la solicitud."

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

1) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).
2) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa:
   a) Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.

Lo que notifico para su conocimiento y efectos, advirtiéndole que contra dicha Resolución podrá interponer alguno de los siguientes recursos:

1) Recurso de reposición, ante el mismo órgano autor del acto, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la notificación de esta resolución (Art. 124.1 de la Ley 39/2015).
2) Recurso contencioso-administrativo ante:
   a) La Sala de lo Contencioso-Administrativo del

LESAKAKO UDALA | Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (Nafarroa) | T. 948 637 005 | Faxa: 948 627 523 | udala@lesaka.eus | www.lesaka.eus

b) Administrazioarekiko Auzi Epaitegian,bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa).

3) Gora jotzeko helegitea, Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa).

Tribunal Superior de Justicia de Navarra.

b) El Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la notificación (Ley 29/1998, de 13 de julio).

3) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a la fecha de notificación de esta resolución (Ley Foral 6/1990, de 2 de julio).

Lesakan, 2018ko apirilaren 11n
Lesaka, a 11 de abril de 2018

Alkatea, el Alcalde:

Egiaztatzen dut / Doy fe,
Idazkaria / El secretario,

LESAKAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Jose Luis Echegaray Andueza